-Besteren izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiriaren kopia aurkeztuko dute, bai eta jarduteko ahalorde nahikoa dutela ziurtatzen duen agiria ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalmena Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluak hala ezartzen badu, edota, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan, zer motatako pertsona juridikoa den.

-Los que comparezcan o firmen proposiciones en nombre de otro, presentarán copia del Documento Nacional de Identidad, así como poder bastante al efecto. Si la empresa fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil, cuando así se exija conforme a lo previsto en el artículo 94 del Reglamento del Registro Mercantil o, en su caso, en el Registro Público que corresponda según el tipo de persona jurídica de que se trate.

Agiri horiek guztiak jatorrizkoak izango dira, edo behar bezala konpultsatutako kopiak.

Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde homologoan izena emanda dauden lizitatzaileek aukera izango dute erregistroko letratu arduradunak emandako indarreko izen emate ziurtagiriaren kopia aurkezteko, 1) atal honetan aipatutako dokumentazioaren ordez. Izen emate ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, dokumentuan jasota dauden baldintzak aldatu ez direla adierazteko.

(ii) Agiri honen 13. klausulan eskatutako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta teknikoa edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa.

-Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa. Lizitatzailearen urteko negozio bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

-Onartu eta Merkataritza Erregistroan aurkeztutako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta egonez gero, edo bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroan legeztaturik dituzten inbentario liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute urteko negozio bolumena.

-Lizitatzaileak izenpetutako erantzukizunpeko adierazpena, kontratuari dagokion arloan duen negozio bolumena adierazten duena.

Toda esta documentación se presentará en original, o copia debidamente compulsada.

Aquellos licitadores que se encuentren inscritos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o en su homólogo de la Comunidad Autónoma de País Vasco, podrán presentar copia del certificado vigente de inscripción expedido por el letrado responsable del Registro en sustitución de la documentación requerida en el presente apartado 1. El certificado de inscripción deberá acompañarse de una declaración responsable firmada por el licitador en virtud de la cual manifieste que las circunstancias reflejadas en el documento no han variado.

(ii) Documentación acreditativa de la solvencia económica y financiera y técnica o profesional exigida en la Cláusula 13 del presente Pliego.

-Solvencia económica y financiera. El volumen anual de negocios del licitador se acreditará por medio de:

-Cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si el empresario estuviera inscrito en dicho registro y, en caso contrario, por las depositadas en el registro oficial en que deba estar inscrito. Los empresarios individuales no inscritos en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil.

-Declaración responsable firmada por el licitador indicando el volumen de negocios del licitador en el ámbito al que se refiere el contrato.

-Gaitasun teknikoa edo profesionala. Lizitatzaileak kirol-instalazioak kudeatzen eta ustiatzen duen esperientzia azken hiru urteetan egindako kirol-instalazioen kudeaketa- eta ustiapen-lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da, eta lan horien zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatuak adieraziko dira. Jasotzailea sektore publikoko erakunde bat bada, lan horiek ondo egin direla egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; jasotzailea arlo pribatuko eroslea bada, berriz, erosleak berak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta halakorik ez bada, enpresaren adierazpena.

-Solvencia técnica o profesional. La experiencia del licitador en la gestión y explotación de instalaciones deportivas se acreditará por medio de una relación de trabajos de gestión y explotación de instalaciones deportivas realizados durante los tres últimos años, indicando su importe, fechas y destinatario público o privado de los mismos. Los referidos trabajos se acreditarán mediante certificados de buena ejecución expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público y, cuando el destinatario sea un comprador privado, mediante un certificado expedido por éste y, a falta de este certificado, mediante una declaración de la empresa.

(iii) Lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan jasotako kontratatzeko debeku bakar bat ere ez duela adierazten duen testigantza judiziala edo administrazioaren ziurtagiria.

Eskumena duen agintariak ezin badu agiri hori eman, administrazioko agintari, notario publiko edo organismo profesional kualifikatu batek jaulkitako erantzukizunpeko adierazpena nahikoa izango da.

(iii) Testimonio judicial o certificación administrativa de no estar incurso el licitador en ninguna de las prohibiciones de contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.

Cuando dicho documento no pueda ser expedido por la autoridad competente, podrá ser sustituido por una declaración responsable otorgada ante una autoridad administrativa, notario público u organismo profesional cualificado.

2. Agiri honen 12. klausulan zehaztutako behin betiko bermea jarri duela egiaztatzen duen dokumentua.

2. Justificante acreditativo de haber constituido la garantía definitiva prevista en la Cláusula 12 del presente Pliego.

3. Hala badagokio, adierazpenen notarioaren akta, baldin eta lizitatzaileak, eskatutako kaudimena ziurtatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritu nahi badu, **XI. eranskineko** ereduaren arabera.

3. En su caso, Acta notarial de manifestaciones para el supuesto de que el licitador, para acreditar la solvencia exigida, pretenda basarse en la solvencia de otras entidades, según modelo contenido en el **ANEXO XI.**

4. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkarte gisa legearen arabera eratuta dagoela egiaztatzen duen agiria; aldi baterako enpresa elkarteko ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmena izango duena kontratua amaitu arte.

5. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta dituela adierazten duen egiaztagiria, edo kontratuko organo kudeatzailearentzako baimena, bere kabuz bil ditzan Gipuzkoako Foru Aldundiko organo eskumendunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak, zerga betebeharrak eta betebehar sozialak betetzeari buruzkoak.

6. 101 langile edo gehiago dituzten enpresek **berdintasun plana dutela egiaztatzeko dokumentazioa** aurkeztu beharko dute, martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

7. Desgaitasunen bat duten langile finkoen kopuruari buruzko adierazpena. 50 langile edo gehiago dituzten enpresek % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa duten pertsonentzako lanpostuen kuota betetzen dutela egiaztatu beharko dute dokumentu bidez; horren osagarri edo horren ordez, alternatiba gisa har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Neurri horiek azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan (Desgaitasunak dituzten Pertsonen Eskubideen eta Gizarteratzearen Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duena) eta hori garatzeko arauetan daude aurreikusita.

4. En su caso, acreditación de su constitución legal como unión temporal de empresas, debiendo designar una persona representante o apoderada única de la unión temporal, con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo.

5. Certificados acreditativos de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social o autorización al órgano gestor del contrato para recabar los certificados a emitir por el órgano competente de la de la Diputación Foral de Gipuzkoa y por la Tesorería General de la Seguridad Social, referentes al cumplimiento de sus obligaciones tributarias y sociales.

6. Las empresas de más de 101 trabajadoras o trabajadores deberán presentar la d**ocumentación justificativa de contar con un plan de igualdad** en aplicación de lo dispuesto en el artículo 45 de la Ley Orgánica 3 / 2007 de 22 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

7. Declaración relativa al número de personas trabajadoras fijas con discapacidad. Las empresas de 50 o más personas trabajadoras deberán aportar la documentación acreditativa del cumplimiento de la cuota de reserva de puestos de trabajo a personas con discapacidad igual o superior al 33% o, complementaria o subsidiariamente, del cumplimiento de las medidas que alternativamente puedan adoptarse, de acuerdo con lo previsto en el Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley General de Derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, así como en la correspondiente normativa de desarrollo.

8. Ekonomia jardueren gaineko zergari lotuta dauden jarduerak eginez gero: dagokion ekitaldiko alta aurkeztu beharko du, edo azken ordainagiria, eta erantzukizunpeko adierazpen bat, non ziurtatzen duen ez duela baja eman zerga horretako matrikulan, eta, hala badagokio, salbuetsita dagoela ziurtatzeko erantzukizunpeko adierazpena.

8. Cuando se ejerzan actividades sujetas al Impuesto sobre Actividades Económicas: alta referida al ejercicio corriente, o último recibo, junto con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado Impuesto y, en su caso, declaración responsable de encontrarse exento.

9. Euskararen ezagutza egiaztatzeko tituluak eta ziurtagiriak, Agiri honen 22.3 klausulan eta **XIII. eranskinean** adieraziak. Kontratu administratibo honen ezaugarri zehatzak kontuan hartuta, salbuespen gisa, ez baditu aipatutako ziurtagiri eta titulu horiek, XIII. Eranskinean ezarritako euskaltegiak euskaltegiak emandako egiaztagiri edo dokumentuak aurkeztu ahal izango ditu. Salbuespen gisa, esleipen proposamena egitean enpresak ez badaki zer langile izango dituen, aurrerago aurkeztu ahal izango ditu tituluak eta ziurtagiriak, baina kontratua gauzatzen hasi aurretik, betiere.

9. Los títulos y certificados acreditativos de conocimientos de euskera indicados en la Cláusula 22.3 y en el **Anexo XIII** del presente Pliego o, en su defecto, excepcionalmente, considerando las características concretas de este contrato administrativo, mediante certificado o documento expedido por el euskaltegi que se establece en el Anexo XIII. Excepcionalmente, si en el momento de la propuesta de adjudicación la empresa desconoce quién va a ser su personal, podrá presentarlos en un momento posterior, aunque siempre antes de la ejecución del contrato.

Adierazitako epean lizitatzaileak ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten, bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio (BEZ gabe), zigor moduan. Eta dokumentazio berbera eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta.

De no cumplimentarse adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que el licitador ha retirado su oferta, procediéndose a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación (IVA excluido), en concepto de penalidad, y a recabar la misma documentación del licitador siguiente, por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas.

Kontratazio Organoak aipatu dokumentazioa jaso eta ondorengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua, eta gehienez ere bi hilabeteko epean, proposamenak ireki diren egunetik kontatzen hasita.

El órgano de contratación adjudicará el contrato dentro de los cinco días hábiles siguientes a la recepción de la referida documentación y en el plazo máximo de dos meses a contar desde la apertura de las proposiciones.

Kontratazio Organoak esleipenaren erabaki arrazoitua jakinaraziko die hautagaiei eta lizitatzaileei, eta KUPren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, 15 eguneko epean.

La adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada y será notificada a los candidatos y licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de

contratante del PMD en el plazo de 15 días.

20. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua haren formalizazioaren bidez burutuko da.

Kontratua dokumentu administratibo baten bidez formalizatuko da, eta dokumentu hori bat etorriko da, zehatz-mehatz, lizitazio baldintzekin. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo da sartu kontratazio baldintzak aldatzea dakarren klausularik.

Hala ere, kontratua eskritura publikoan jasotzeko eskatu ahal izango du esleipendunak, gastuak bere gain hartuta.

Formalizazioa ezin izango da egin lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost lanegun igaro aurretik.

Behin igaro dela aurreko paragrafoan aurreikusitako epea eta inork ez badu formalizazioa bertan behera geratzea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri, KUPek errekerimendua egingo dio esleipendunari, kontratua formalizatzeko, errekerimendua jaso eta hurrengo 5 egun naturalen barruan. Modu berean jardungo du errekurtsoa ebazteaz arduratzen den organo eskumendunak formalizazioarekin jarraitzeko erabakitzean (SPKL, II, 153.3. art.).

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, KUPren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratua burutu eta gehienez 15 eguneko epean.

20. PERFECCIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO

El contrato se perfeccionará mediante su formalización.

El contrato se formalizará en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación. En ningún caso se podrán incluir en el documento que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la contratación.

El adjudicatario podrá solicitar, no obstante, la elevación del contrato a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

La formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

El PMD requerirá a la adjudicataria para que formalice el contrato en plazo no superior a 5 días naturales a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización del contrato. De igual forma procederá cuando el órgano competente para la resolución del recurso hubiera levantado la suspensión (art. 153.3.II de la LCSP).

La formalización del contrato se publicará, junto con el correspondiente contrato, en un plazo no superior a quince días tras el perfeccionamiento del contrato en el perfil de contratante del PMD.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada jarritako epean sinatzen, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3 (BEZ gabe) eskatuko zaio zigor moduan, eta behin betiko bermearen kontra gauzatuko da lehenik, SPKLren 71. artikuluaren 2) atalaren b) letran ezarritakoari kalterik egin gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzen sailkapen ordena kontuan hartuta, Agiri honen 19. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ostean, eta hamar laneguneko epea emango zaio dokumentazio hori aurkezteko.

Cuando, por causas imputables al adjudicatario, no se hubiese formalizado el contrato dentro del plazo indicado, se le exigirá el importe del 3% del presupuesto base de licitación (IVA excluido), en concepto de penalidad, que se hará efectivo, en primer lugar, contra la garantía definitiva, sin perjuicio de lo establecido en la letra b) del apartado 2) del artículo 71 de la LCSP. En este caso, el contrato, se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hayan quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación exigida en la Cláusula 19 del presente Pliego, concediendo un plazo de diez días hábiles para presentar la misma.

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak **Juan Fco. Álvarez Peláez**, KUPeko gertuko teknikaria, izendatzen du kontratuaren arduradun; hark gainbegiratuko ditu lanak, erabakiak hartuko ditu eta beharrezkoak diren jarraibideak aginduko ditu, hitzartutako prestazioak behar bezala burutzen direla ziurtatzeko, Kontratazio Organoak esleitzen dizkion gaitasunen esparruan, betiere.

Kontratuaren arduradunak ematen dituen aginduak nahitaez beteko ditu enpresa emakidadunak.

Kontratuaren arduradunak interes orokorra babestuko du, eta enpresa emakidadunak bere betebeharrak betetzen dituela egiaztatuko du, bereziki zerbitzuaren prestazioaren kalitateari dagokionez.

21. RESPONSABLE DEL CONTRATO

El órgano de contratación designa a **Juan Fco. Álvarez Peláez**, técnico de proximidad del PMD, como responsable del contrato, al que corresponderá supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de facultades que aquél le atribuya.

Las instrucciones que imparta el responsable del contrato serán de obligado cumplimiento para la empresa concesionaria.

El responsable del contrato actuará en defensa del interés general, para obtener y para verificar el cumplimiento de las obligaciones de la empresa concesionaria, especialmente en lo que se refiere a la calidad en la prestación del servicio.

22. KONTRATUA BETEARAZTEA

22.1 BETEARAZTEKO BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua baldintza hauen arabera betearaziko da:

-Kontratua enpresa emakidadunaren arrisku eta menturapean betearaziko da.

-Kontratua kontratuko termino eta baldintzen arabera betearaziko da, Administrazio Klausula Partikularren Agiri honen arabera, Preskripzio Teknikoen Agiriaren arabera eta enpresa emakidadunak aurkeztutako eskaintzaren arabera, baita KUPk ematen dituen jarraibideen arabera ere.

-KUPk polizia ahalak izango ditu zerbitzuen martxa egokia dela eta kirol instalazioetako Zerbitzuen Araudian xedatutakoa betetzen dela bermatzeko, herritarrei eskaintzen zaizkien prestazioei dagokienez.

-Pertsona edo enpresa kontratistak ekipo eta giza baliabide egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta lanen martxaren araberako premiei une oro erantzun beharko die. Era berean, proposamenean sartutako baliabide teknikoak ere jarri behar ditu eta, oro har, lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren baliabide guztiak.

-Enpresa kontratistak enpresako langile bat, gutxienez, izendatu beharko du KUPen solaskide izateko; pertsona horren eginkizun izango dira zerbitzuaren martxa egokia kontrolatzea; kontratua betearaztearekin lotutako gorabehera garrantzitsuen berri ematea eta KUPi kontrol eginkizun hori betetzeko beharrezkoak diren informazio, dokumentazio eta datu guztiak ematea; eta kontratuaren eraginpeko langileei eman beharreko agindu edo jarraibideak ematea.

22. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

22.1 CONDICIONES GENERALES DE EJECUCIÓN

El contrato se ejecutará con arreglo a las siguientes condiciones:

-El contrato se ejecutará a riesgo y ventura de la empresa concesionaria.

-El contrato se ejecutará según sus términos y condiciones, según el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, el Pliego de Prescripciones Técnicas y la oferta presentada por la empresa concesionaria, así como conforme a las instrucciones que imparta el PMD.

-El PMD dispondrá de poderes de policía para asegurar la buena marcha de los servicios y que se cumpla lo dispuesto en el Reglamento de Servicios de instalaciones deportivas en relación con las prestaciones a favor de la ciudadanía.

-La persona o empresa contratista deberá prestar el servicio con el equipo y medios personales adecuados, respondiendo en todo momento a las necesidades que se deriven de la marcha de los trabajos. Aportará también los medios técnicos incluidos en su propuesta y, en general, cuantos se precisen para la buena ejecución de los trabajos.

-La empresa contratista, deberá designar al menos una persona perteneciente a la plantilla de su empresa, que actuará de interlocutora con el PMD y que tendrá entre sus funciones controlar la buena marcha del servicio, informar de las incidencias importantes relativas a la ejecución del contrato y aportar al PMD toda la información, documentación y datos que necesite para su función de control, así como dictar las órde-

nes o instrucciones necesarias al personal adscrito al contrato.

-Esleipenduna behartuta dago aurkeztutako 1.artxibo elektronikoan(“Balio judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa”) aplikagarri bezala adierazitako hitzarmen kolektiboa betetzera kontratu honen xede diren lanak egingo dituzten langileentzako. Hitzarmen kolektibo horri buruzko informazioa adjudikatzeko ebazpenean emango da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

- El adjudicatario está obligado a cumplir con el Convenio Colectivo declarado de aplicación por él mismo en su archivo electrónico nº1 (“Documentación relativa a criterios cuya cuantificación dependa de un juicio de valor”) para los trabajadores que realicen las tareas correspondientes al objeto de este contrato. La información sobre dicho convenio colectivo se incluirá en la resolución de adjudicación y se publicará en el perfil de contratante.

Kontratua betearazten den bitartean, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordainduko du enpresa emakidadunak, langile bakoitzari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko soldata inola ere ez da izango aipatu hitzarmenean adierazitakoa baino txikiagoa. Kontratista behartuta egongo da baldintza horiek egiaztatzeko eska diezaioketen informazio edo dokumentazio oro kontratazio organoari ematera.

La empresa concesionaria deberá, a lo largo de toda la ejecución del contrato abonar el salario recogido en el convenio sectorial de aplicación, según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel. La contratista vendrá obligada a facilitar al órgano de contratación cualquier información o documentación que le sea requerida para acreditar este extremo.

Azpikontratazio kasuan, enpresa azpikontratistak ere Klausula honetan xedatutakoa bete beharko du. Azpikontratatutako jarduera hasi aurretik, enpresa kontratistak egiaztatu egingo du azpikontratatu dituen enpresetako langileak Gizarte Segurantzan alta emanda eta afiliatuta daudela.

En caso de subcontratación, la empresa subcontratista deberá igualmente cumplir con lo dispuesto en esta Cláusula. La empresa contratista comprobará, con carácter previo al inicio de la actividad subcontratada, la afiliación y el alta en la seguridad social de los trabajadores y las trabajadoras de las empresas con las cuales subcontrate.

Enpresa kontratistak ez baditu betetzen Klausula honek ezartzen dizkion betebeharrak eta, horren ondorioz, KUPk ez-betetze horren kostu ekonomikoak bere gain hartzera zigortzen badute, kostu horiek kontratistari egotziko zaizkio. Hala, Administrazio kontratatzaileak eginbide administratiboak edo judizialak abiarazi ahal izango ditu, ordaindutako kopuruak guztiz berreskuratu arte.

Si como consecuencia del incumplimiento por la empresa contratista de las obligaciones asumidas en virtud de esta Cláusula, el PMD fuera condenado a asumir las consecuencias económicas que de aquel se derivan, se repercutirán las mismas en la contratista, a cuyos efectos el PMD se reserva el ejercicio de cualesquiera acciones, administrativas o judiciales, que sean adecuadas y convenientes

hasta la total recuperación de las cantidades satisfechas.

Atal honetan aurreikusitakoa betearazteko baldintza berezitzat eta funtsezko betebehartzat hartuko da SPKLren 211.1.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, KUPk hala nahi badu.

Lo dispuesto en el presente apartado tiene el carácter de condición especial de ejecución y obligación esencial a los efectos previstos en el artículo 211.1. f) de la LCSP, siendo por tanto cualquier incumplimiento de la misma causa de resolución del contrato, a voluntad de PMD.

-Kontratua betearaztean, enpresa emakidadunak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten neurriak zehaztu beharko ditu honako alderdi hauei dagokienez: lana lortzea, langileen sailkapena, mailaz igotzea, iraunkortasuna, prestakuntza, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna, eta lanaldiaren iraupena eta antolamendua; halaber, kontratua betearazteari atxikitako langileei norberaren bizitza, laneko bizitza eta familia bizitza uztartzea ahalbidetuko dieten neurriak ere ezarri beharko ditu, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako Lege Organikoan (martxoaren 22ko 3/2007) xedatutakoari jarraikiz.

-La empresa concesionaria, en la ejecución del contrato, deberá establecer medidas que garanticen la igualdad de mujeres y hombres en el acceso al empleo, clasificación personal, promoción, permanencia, formación, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada, así como aquellas que favorezcan la conciliación de la vida personal, familiar y laboral del personal adscrito a la ejecución del contrato, conforme establece la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

Kontratua betearaztean sortutako dokumentu, publizitate, irudi edo material guzti-guztietan hizkuntza ez sexista erabili behar du enpresa emakidadunak; ez da emakumea diskriminatzeko moduko irudirik edo estereotipo sexistarik erabili behar, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, dibertsitatearen, erantzunkidetasunaren, eta genero nortasun eta rol aniztasunaren balioak adierazten dituen irudia sustatu behar da.

La empresa concesionaria deberá utilizar un lenguaje no sexista en toda su documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del contrato, y deberá evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de roles e identidades de género.

Sexu jazarpenari eta sexuak eragindako laneko jazarpenari aurrea hartzeko neurriak ezartzen direla bermatuko du enpresa emakidadunak.

La empresa concesionaria garantizará la adopción de medidas para prevenir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en el trabajo.

-Kontratistak datu pertsonalak babesteari buruzko arauak bete beharko ditu, naziokoak

-El contratista deberá someterse a la normativa nacional y de la Unión Europea en

nahiz Europar Batasunekoak.

materia de protección de datos personales.

22.2 EGITEKO BALDINTZAK, OBREI DAGOZKIENAK

-Emakidadunak instalazioan egin behar dituen obrak (baita nahitaezko obrak ere) hirugarrenekin kontratatu ahal izango dira, osorik edo partzialki. Hala eginez gero, emakidadunak KUPi jakinaraziko dio.

Agiri honen 8.3 klausulan aipatutakoak izan ezik, edozein obra egiten hasi aurretik, emakidadunak dagokion proiektua aurkeztu beharko du KUPek onar dezan.

Udalaren higiezina izaki, Zubietako auzoan, Arrabide Pasealekuaren 960.zenbakian egin beharreko lanak udal lantzat hartuko dira eta, beraz, proiektua onartuz gero, ez da hirigintza lizentziarik behar.

Obrak egingo dituzten enpresek kasuan kasu dagokien sailkapena izan beharko dute, eta indarrean dagoen lan arloko araudia eta, zehazki, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmena bete beharko dituzte.

-Emakidadunaren betebeharra izango da lanak egiteko eta jarduera bideratzeko beharrezkoak diren lizentzia, bisa eta baimen guztiak lortzea, eta udal baimenak kudeatuko ditu, bereziki aldamioak, hesiak, hartuneetara iristeko bideak, muntatze lanak, garabien lana eta beste batzuk antolatzeko beharrezkoak diren guztiak. Halaber, horietatik guztietatik eratorritako gastuak, tasak eta gainerako zergak ordainduko ditu.

-Emakidadunaren betebeharra izango da

22.2 CONDICIONES DE EJECUCIÓN RELATIVAS A LAS OBRAS

-La ejecución de las obras que la concesionaria vaya a ejecutar en la instalación, incluidas las obligatorias, podrán ser contratadas en todo o en parte con terceros. En este caso, el concesionario lo comunicará al PMD.

Previo a la ejecución de cualquier obra, salvo las referidas en la Cláusula 8.3 del presente Pliego, la concesionaria deberá aportar el correspondiente proyecto para su aprobación por el PMD.

Las obras a realizar en la parcela con dirección Paseo de Arrabide nº 960, situado en el barrio de Zubieta , inmueble de titularidad municipal, tendrán carácter de obras municipales, por lo que con la aprobación del proyecto no precisará de licencia urbanística.

Las empresas que vayan a ejecutar las obras deberán tener la clasificación correspondiente en cada caso y deberán cumplir con la normativa laboral en vigor y en concreto el convenio sectorial de aplicación.

-Será obligación de la concesionaria la obtención de cuantas licencias, visados, autorizaciones y permisos requiriesen el ejercicio de la actividad y la ejecución de los trabajos, así como la gestión de los permisos municipales, en particular, de los que fuesen necesarios para la colocación de andamios, vados, vallas, aperturas de calzadas para acometidas, montaje y funcionamiento de grúas, etc., así como el pago de las tasas y restantes tributos y gastos originados por razón de todos ellos.

-Será obligación de la concesionaria la redac-

erakunde eskudunetan alta jasotzeko eta sare eta zerbitzuetara, behin-behineko hartuneetara eta behin betikoetara atxikitzeko funtzionamendu baimena lortzeko eta orobat instalazioen funtzionamendu egokia eta legezkoa lortzeko xedean aurkeztu beharreko proiektuak idatzi eta onetsiko ditu, eta horretatik eratorritako gastuak ordainduko ditu.

ción y visado de los proyectos que haya que presentar en los organismos competentes para obtener el alta y el permiso de funcionamiento de los enganches a redes y servicios, acometidas provisionales y definitivas y, en general, todo lo necesario para el funcionamiento adecuado y legalizado de las instalaciones, así como el pago de los gastos originados por dicha causa.

-Halaber, emakidadunak kontratatu beharko ditu obra zuzendaria eta segurtasuneko eta osasuneko koordinatzailea.

-Asimismo serán de cuenta de la concesionaria la contratación de la dirección de obra y coordinación de seguridad y salud.

-Obrak bukatzean, emakidadunak adostasun-akta, obra amaierako kitapena eta egindako ordainketak justifikatzen dituzten fakturak aurkeztuko dizkio KUPi.

-A la finalización de las obras, la concesionaria aportará al PMD el acta de recepción, la liquidación final de las obras y las facturas justificativas de los pagos realizados.

-Aplikatu beharrekoak izan daitezkeen sektoreko arauak bete behar dira eta, besteak beste, laneko arriskuen prebentzioko, segurtasuneko eta osasuneko, eta ingurumeneko xedapenak.

-Se deberá cumplir de la normativa sectorial que pudiera resultar de aplicación y entre otras las disposiciones de prevención de riesgos laborales y de seguridad y salud y ambiental

-Nahitaez egiteko obrak kontratuaren iraunaldiko lehen urtean egin behar dira, Preskripzio Teknikoen Agiriari atxikitako Onartutako Proiektuei jarraikiz. Obrak erabat bukatuta eta legeztatzea eskatuta egongo dira, gehienez ere, urtebeteko epean, zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta, KUPek eskatuz gero, epe hori luzatu egingo da, hurrengo atalean aurreikusitako baldintzetan.

-Las obras obligatorias de ejecución deberán ejecutarse en el primer año de duración del contrato de conformidad con los Proyectos aprobados que se adjuntan al Pliego de Prescripciones Técnicas. Las obras deberán estar completamente terminadas y solicitada su legalización en el plazo máximo de un año desde el día siguiente al de la fecha de formalización del acta de comprobación del replanteo, que se extenderá a requerimiento de PMD, en los términos previstos en el apartado siguiente.

KUP ez badago ados obrak gauzatzeko moduarekin, proiektuen arabera beharrezkoak diren obrak subsidiarioki gauzatzeko aukera izango du, emakidadunaren kontura.

Si la ejecución de las obras no son conformes por parte del PMD, éste podrá optar por ejecutar subsidiariamente las obras que sean necesarias de conformidad con los proyectos, a costa de la concesionaria.

-Emakidadunaren betebeharra izango da obrak egiteagatik hirugarrenei eragindako kalteak ordaintzea, hari egotz dakizkiokeenean.

22.3 USTIAKETA BETEARAZTEKO BALDINTZAK

-Instalazioan eskaintzen diren zerbitzuetan, edonola ere, Kirolaren Udal Patronatuaren Zerbitzuen Araudian xedaturikoa bete beharko da.

-Kontratua betearaztean, enpresa adjudikaziodunaren langileek adingabeekin lan egin beharko dute.

Ondorio horietarako, kontratua betearazten hasi aurretik, enpresa **esleipenduna behartuta egongo da kontratuaren gauzatzean parte hartuko duen langile bakoitzaren izaera sexualeko delituen ziurtagiria aurkeztera** beti ere adintxikikoak diren pertsonekin lan egin beharko badute. Ziurtagiri horiek berriro ere, kontratistak aurkeztu beharko ditu, baldin eta kontratua betearazteko pertsona berriak hartzen baditu eta egoera horretan badaude.

Nahi izanez gero, esleipendun gisa proposatutako enpresak kontratua gauzatuko duten langileen izen-abizenak eta NANa aurkeztu ahal izango du (XIV eranskinaren arabera), KUPek haien sexu-delituen ziurtagiriak kontsultatu ahal izateko, ziurtagiri horiek negatiboak direla egiaztatzeko.

Interesdunek eskubidea dute jada Administrazioaren esku dauden agiriak ez aurkezteko (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua).

-Será obligación de la concesionaria indemnizar los daños que se ocasionen a terceros por causa de la ejecución de las obras cuando le sean imputables.

22.3 CONDICIONES DE EJECUCIÓN DE LA EXPLOTACIÓN

-Los servicios que se presten en la instalación se regirán en todo caso por lo dispuesto en el Reglamento de Servicios del Patronato Municipal de Deportes.

-La ejecución del contrato exige que el personal de la empresa adjudicataria debe trabajar con personas menores de edad.

A dichos efectos, antes del inicio de la ejecución del contrato, **el adjudicatario deberá presentar el certificado de delitos de naturaleza sexual de cada una de las personas que por cuenta de la empresa adjudicataria** prestarán el servicio objeto del contrato y deba trabajar con personas menores de edad. Estos certificados tendrán que ser nuevamente presentadas por el contratista, siempre que se incorporen nuevas personas a la ejecución del contrato que se encuentren en la referida situación.

Si lo prefiere la empresa propuesta como adjudicataria podrá presentar los nombres y apellidos y el DNI de los trabajadores que ejecutarán el contrato (Según Anexo XIV), para poder consultar por parte del PMD sus certificados de delitos de naturaleza sexual, a fin de comprobar que estos son negativos.

Las personas interesadas tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración. (Artículo 28 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

KUPek egiaztapen hori egiten ahalko du eskaera egiten den unean bertan, baita kontratua indarrean dagoen bitartean ere, interesdunak kontrakorik adierazten ez badu behintzat.

El PMD podrá llevar a cabo esta comprobación en el momento de la solicitud como en cualquier momento durante la vigencia del contrato, salvo que la persona interesada se opusiera a ello.

Aurka eginez gero, beharrezkoa da oposizioaren arrazoiak justifikatzea (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua). Kontsultatu “Aurka egiteko eskubidea” izapidea.

En caso de oposición, es necesario que justifique las razones de su oposición (art. 21 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. Consulte el trámite “Derecho de oposición”.

KUPek datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa izango du interes publikoan egindako misio bat betetzean edo Udalari berari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1) artikuluan aurreikusitako moduan.

El tratamiento de los datos de carácter personal por parte del PMD Sebastián queda legitimado en el cumplimiento de una misión realizada en interés público o el ejercicio de poderes públicos conferidos al propio Ayuntamiento, en los términos previstos en el artículo 6.1) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016.

-Herritarrek zerbitzua jasotzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan komunikatzeko duten eskubidea bermatuko da, hau da, euskara zein gaztelania izango dira zerbitzu hizkuntzak.

-Se garantizará el derecho de la ciudadanía a recibir el servicio y comunicarse en cualquiera de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, es decir, tanto el euskera como el castellano serán las lenguas de servicio.

Beraz, honako irizpide hauek beteko dira ahozko zein idatzitako komunikazioetan:

Por lo tanto, se cumplirán los siguientes criterios tanto en las comunicaciones orales como escritas:

1. Arreta emateko lehen hizkuntza euskara izango da, eta ondoren herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko da, telefonoz zein aurrez aurre.

1. La primera lengua de atención será el euskera, y después se continuará en a lengua elegida por la ciudadanía, tanto por teléfono como en persona.

Era berean, ahozko mezuak, erantzungailu automatikoek, megafoniak, audio aparatuek eta abarrek emandakoak, bi hizkuntza ofizialetan emango dira, lehenik euskaraz eta ondoren

Asimismo, los mensajes orales, emitidos por contestadores automáticos, megafonía, aparatos de audio, etc. se emitirán en las dos lenguas oficiales, primero en euskera y

gaztelaniaz.

2. Adjudikatutako zerbitzua emateko erabiltzen diren idatzitako elementu guztiak (inprimakiak, jakinarazpenak, oharrak, seinaleak, errotuluak, jarraibideak, tarifak, publizitatea…), eta publikoaren eskura dauden makina produktu saltzaileen edo kirol makinen eta informatika sistemen hizkuntza elementuak bi hizkuntza ofizialetan idatzita egongo dira, euskarari lehentasuna emanez.

3. Aipatutako komunikazio guztiak, idatzitakoak nahiz ahozkoak, euskaraz bakarrik egin ahal izango dira, kontratatutako zerbitzuaren hartzaileen ezaugarriek horretarako aukera ematen dutenean.

Goian esandakoa bermatzearren, adjudikaziodunak berak edo hark azpikontrataturiko enpresek instalaziorako kontrataturiko langileek gauza izan behar dute erabiltzaileekin bi hizkuntza ofizialak erabilita komunikatzeko, betiere herritarrekin harremanetan baldin badaude.

Zentzu horretan, herritarrak artatzen dituzten langileen % 100ak 2. hizkuntz eskakizunaren baliokidea den maila izan beharko dute euskaraz, ahoz monitore, sorosle edo tabernako langileen kasuan, eta ahoz nahiz idatziz harrerako eta administrazioko langileen kasuan.

Aurreikusi ez den lanposturik izanez gero (medikuak, masaje emaileak…), KUPi jakinarazi behar zaio eta KUPek Udaleko Euskara Zerbitzura jo beharko du lanpostu horretan zein euskara maila eskatu behar den zehazteko.

Kontratua adjudikatzen denean, langileren baten ordez beste pertsona bat hasten bada edo langile berriak hasten badira lanean, pertsona horiek

después en castellano.

2. Todos los elementos escritos (impresos, notificaciones, notas, señales, rótulos, instrucciones, tarifas, publicidad…), así como los elementos lingüísticos de máquinas expendedoras de productos o deportivas y sistemas informáticos que estén a disposición del público que se utilicen para la prestación del servicio adjudicado estarán redactados en las dos lenguas oficiales, dando prioridad al euskera.

3. Todas las comunicaciones mencionadas, tanto escritas como orales, se podrán hacer únicamente en euskera, cuando las características de las personas receptoras del servicio contratado así lo permitan.

Para garantizar lo dicho anteriormente, el personal contratado en la instalación, bien directamente por el adjudicatario bien por empresas subcontratadas por él, deberá poder comunicarse con los usuarios en los dos idiomas oficiales, siempre que tenga relación con la ciudadanía.

En este sentido, el 100% del personal que atiende a la ciudadanía deberá tener un nivel de conocimiento de euskera equivalente al PL2, a nivel oral en el caso de monitores, socorristas o personal de servicio del bar, y a nivel oral y escrito en el caso del personal de recepción y administración.

En caso de haber otros puestos no previstos (como personal médico, masajistas, …) habrá que comunicar al PMD que a su vez deberá solicitar asesoría al Servicio de Euskera del Ayuntamiento para establecer el nivel de euskera que se requiere.

Una vez adjudicado el contrato, si alguna de las personas trabajadoras es sustituida por otra o en caso de nuevas incorporaciones,

dagokien euskara maila badutela egiaztatu beharko dute, eta KUPi aldez aurretik jakinarazi beharko zaio.

Haur eta nerabeei zuzendutako jarduerak euskaraz izango dira, ohiko moduan. 16 urtetik gorakoei zuzendutako jarduerei dagokienez, elebitako eta euskarazko kirol jardueren eskaintza arian-arian areagotzeko neurriak hartuko dira eta, nolanahi ere, bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla bermatuko da, erabiltzaileak nahi duen hizkuntza ofiziala erabiltzeko duen eskubidea betetzearren.

Kirol txapelketak antolatzen badira, edo instalazioak lagatzen badira edozein motatako ekitaldiak egiteko, edo lokalak edo instalazioen zati bat lagatzen bazaizkie beste kirol erakunde edo klub batzuei, antolatutako jarduerarekin loturik argitaratzen dituzten ohar, kartel, sarrera eta gainerako idatzitako elementu guztiak euskaraz idatziko dira, edo euskaraz eta gaztelaniaz, eta bi hizkuntza horietan egingo da jardueraren publizitatea eta zabalkundea. Era berean, jendeari arreta eta megafoniako mezuak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira; lehentasuna euskarari emango zaio eta hizkuntza ez sexista erabiltzen dela bermatuko da.

23. ENPRESA EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

23.1 ENPRESA EMAKIDADUNAREN ESKUBIDEAK

Indarreko legedian eta Agirietan adierazitako orokorrez gain, enpresa emakidadunaren eskubide eta KUPen betebehar korrelatibo izango dira honako hauek:

-Hochey Zubieta instalazioak erabiltzeagatik dagozkion tarifak jasotzea.

dichas personas deberán acreditar el nivel de euskera correspondiente, y deberá ser comunicado previamente al PMD.

Las actividades dirigidas a niños y niñas, y a adolescentes serán habitualmente en euskera. En cuanto a las actividades dirigidas a mayores de 16 años, se adoptarán las medidas oportunas para ampliar de forma progresiva la oferta de actividades deportivas bilingües y en euskera, garantizándose en todo caso el uso de las dos lenguas oficiales, atendiendo al derecho del usuario a utilizar la lengua oficial de su elección.

Si se organizan competiciones deportivas o se ceden las instalaciones para cualquier tipo de evento, o se ceden locales o parte de las instalaciones a otros clubes o entidades deportivas, todos avisos, carteles, entradas y demás elementos escritos que éstos publiquen asociados a la actividad organizada, se escribirán en euskera o en euskera y castellano, y se realizará en dichas lenguas la difusión y la publicidad de la actividad. Asimismo, la atención al público y la emisión por megafonía se realizarán en euskera o en euskera y castellano, dando prioridad al euskera y garantizando un lenguaje no sexista.

23. DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONCESIONARIA

23.1 DERECHOS DE LA EMPRESA CONCESIONARIA

Serán derechos de la empresa concesionaria, y correlativas obligaciones de PMD, además de los de carácter general señalados en la legislación vigente y en los Pliegos, los siguientes:

-La percepción de las tarifas correspondientes por la utilización de las instalación de Hockey

de Zubieta .

-Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera, KUPn ordainsari ekonomikoa eskuratzea.

-Obtener la retribución económica del PMD de acuerdo con lo previsto en este Pliego.

-Zerbitzurako beharrezkoak diren kirol instalazioak erabiltzea, Preskripzio Teknikoen Agirian adierazitako baldintzetan.

-Utilizar las instalaciones deportivas necesarias para el servicio en los términos indicados en el Pliego de Prescripciones Técnicas.

-Dagozkion kalte-ordainak jasotzea, sektore publikoko kontratazioari buruzko araudian aurreikusitako kontratua suntsiarazteko kasuetan.

-Percibir las oportunas indemnizaciones, en los supuestos de resolución del contrato en que la normativa de contratación del sector público así lo prevé.

23.2 ENPRESA EMAKIDADUNAREN BETEBEHARRAK

23.2 OBLIGACIONES DE LA EMPRESA CONCESIONARIA

Honako hauek dira enpresa emakidadunaren betebeharrak:

Serán obligaciones de la empresa concesionaria las siguientes:

- Obra egitea, zerbitzua hitzartutako jarraitutasunarekin ustiatzea eta ematea, eta partikularrei erabiltzeko eskubidea bermatzea, ezarritako baldintzetan eta, hala badagokio, tarifetan jasotako kontraprestazio ekonomikoa ordainduz. Kontratua kontratua betetzeagatik azkentzen bada, kontratistak zerbitzua ematen jarraitu beharko du kontratu berria formalizatu arte.

-Ejecutar la obra, explotar y prestar el servicio con la continuidad convenida y garantizar a los particulares el derecho a utilizarlo en las condiciones que hayan sido establecidas y mediante el abono, en su caso, de la contraprestación económica comprendida en las tarifas. En caso de extinción del contrato por cumplimiento del mismo, el contratista deberá seguir prestando el servicio hasta que se formalice el nuevo contrato.

-Kirolaren Udal Patronatuaren Zerbitzuen Araudian aurreikusitakoa betetzea.

-Dar cumplimiento a lo previsto en el Reglamento de Servicios del Patronato Municipal de Deportes.

-Zerbitzuaren ordena egokia zaintzea, horretarako egokiak diren jarraibideak emanez, KUPri dagozkion polizia ahalak alde batera utzi gabe.

-Cuidar del buen orden del servicio, pudiendo dictar las oportunas instrucciones, sin perjuicio de los poderes de policía que correspondan a PMD.

-Kalte-ordaina ematea, zerbitzuaren garapenak eskatzen dituen lanen eraginez hirugarrenei eragindako kalteengatik. Salbuespena izango da kaltea Administrazioari egozteko moduko arrazoiengatik gertatzen bada.

-Indemnizar los daños que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera el desarrollo del servicio, excepto cuando el daño sea producido por causas imputables a la Administración.

-Zerbitzuen emakidaren ondoriozko hornidura kontratuetan, nazionalitateak eragindako diskriminaziorik ezaren printzipioa errespetatzea, Europar Batasuneko estatu kideetako edo Munduko Merkataritza Antolakundearen Kontratazio Publikoaren Akordioa sinatu duten estatuetako enpresei dagokienez.

-Respetar el principio de no discriminación por razón de nacionalidad, respecto de las empresas de Estados miembros de la Comunidad Europea o signatarios del Acuerdo sobre Contratación Pública de la Organización Mundial del Comercio, en los contratos de suministro consecuencia del de concesión de servicios.

-Kontratua betearaztean eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzea, betiere informazio horren ezaugarriak direla eta era horretan tratatu behar bada. Betebehar hori bost urtez egongo da indarrean, informazioa jakiten denetik hasita.

-Respetar el carácter confidencial de aquella información a la que tenga acceso con ocasión de la ejecución del contrato que por su propia naturaleza deba ser tratada como tal. Este deber se mantendrá durante un plazo de cinco años desde el conocimiento de esa información.

-Kontratua betearazteko behar adina giza baliabide edo baliabide material atxikitzea edo eskaintzea.

-Dedicar o adscribir a la ejecución del contrato los medios humanos o materiales suficientes para ello.

-Lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasunaren, laneko higiene eta osasunaren, eta ingurumena babestearen arloan indarrean dauden xedapenak betetzea.

-Cumplir con las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social, de seguridad e higiene y salud en el trabajo y protección del medio ambiente.

Kontratistak ez baditu betebehar horiek betetzen, edo kontratistak izendatutako teknikariek ez badituzte segurtasunari buruzko xedapen hauek betetzen, KUPk ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain.

El incumplimiento de estas obligaciones por parte del contratista o la infracción de estas disposiciones sobre seguridad por parte del personal técnico designado por él no implicará responsabilidad alguna para PMD.

-Emakidaren epea amaitzen denean, instalazioak kontserbazioko eta funtzionamenduko egoera onean entregatu beharko ditu.

-Cuando finalice el plazo de la concesión, deberá entregar las instalaciones en el estado de conservación y funcionamiento adecuado.

-Jarduera egin ahal izateko beharrezkoak diren unean uneko administrazio lizentzia eta baimenak eskatzea eta lortzea.

